



MINGORRI

Lan au irakurri baiño leen, pentsa eizu zer edo nor izan ete dan Mingorri. Izen ori dauan zerbait edo ipuiñetako pertonaia bat ezagutzen al dozu? Zergatik jarri dautsoe izen ori? Ondoren irakurri eizu lana.

Mingorri Euskal Erriko erri ezagun bateko pertsonaia ospetsu bat da. Izen orrekin norbaitek pentsa daiteke gure mitologiako pertsonaia bat dela, Tartalo edo Basajaun lez, baiña ez da mitologiako pertsonaia, baizik eta Aste Santuko prozesiona urtetan dan irudietako bat.

Pertsonaia au lekeitiarrek ondo ezagutzen dabe, lekeitiar gazteek eta umeek geienbat. Lekeitian bada Aste Santuan oitura bitxi bat, batez bere umeen artean. Garai orretako gomazko gozokiak egiten dira, onei “karamelo gomazkoak” deitzen dautsies lekeitiarrek. Baiña zer dira gomazko karamelo orreek? Bada, paperezko otarretxoetan ipiñiako karamelo zatiak, au da ura eta azukrea besterik ez daukadanak. Gozoki arruntak baiño bigunagoak dira, gomazkoak emoten dabe eta, beraz, luzatu egin daitezke.

Baiña zer ikusirik dabe gozoki onek Mingorriekin? Bada, beste leku batzuetan txokolatzeko arrautzak jaten diran lez, **Lekeitian Aste Santuan** gozoki onek erabiltzen dabez, baiña ez jateko, deabruari barre egiteko baño.

Bariku Santu egunean Mingorri izeneko pauso bat ateratzen da **Lekeitioko prozesioan**. Mingorri ori

erdi zakur, otso eta azeri moduko animalia arraro baltz-baltza da eta min gorri luze-luzea ateratzen dau, ortik Mingorri izen.

Animali orrek deabrua irudikatzen dau eta atzean erioa irudikatzen dauan beste estatua bat dauka. Umeek, Mingorri euren aurretik pasatzen danean, iseka egiten dautsoe eta ark dauana aiñako mii luzea ateratzen dautsoe, gomazko karamelua, esatebaterako. Ondoren karamelo orreek deabruari gaiñera botatzen dautsoez eta onen gorputzean itsatsita gertzen dira, materia itsakorra dalako. Bizia benetan!

Agustin Arrien

